



1GO. BATXILERGOKO MODALITATEKOEN AZALPEN LABURRA

IKASGAIA		DESKRIBAPENA
BIO-GEO Zientziak	BIOLOGIA MI NTE GIA	<p>Bio-Geo ikasgaiaren ondorengo oinarrizko jakintzak landuko dira azalpen teorikoak, ariketak eta laborategiko saiakuntza bezelako jardueren bitartez . Bestalade, ikasle bakoitzaren kompetenzien garapena lortzeko proiektuak egingo dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Lur planeta eta denbora geologikoa. -Eboluzioa. -Mikroorganismoak. -Onddoak, landareak eta animaliak.
MARRAZKETA TEKNIKOA I Teknologiko	MARRAZKETA MI NTE GIA	<p>Marrazketa Teknikoa I irakasgaiaren helburua formen mundua modu grafikoan adierazteko gaitasuna garatzea da. Marrazketa teknikoaren hizkuntza unibertsal bat dela ulertuko dugu, eta, hortaz, adierazitako formak irudikatze eta ulertzeko UNE eta ISO araudiak kontutan hartzea ezinbestekoa dela.</p> <p>Hauek aplikatzeko, teknologia eta lexiko bereziak ezagutu eta marrazketa teknikoaren tresnak trebetasunez erabiltzen ikasiko da. Marrazketa teknikoaren prozedurak eta metodologiaz baliatuz ideia zientifiko-teknikoan aplikatzeko gaitasuna garatuko da. Gainera, diseinu-prozesuetan eta soluzioak bilatzeko prozesuetan, krokisak, zirriborroak eta apunteak ezinbesteko osagaiak direla konturatzea eta balioestea eskatuko da. Sistema Diedriko eta Axonometriko erabiltzeko gaitasuna ere garatuko da.</p> <p>Ezagutza teorikotik abiatuta, laminetan praktikoki aplikatuko da ikasitako materia.</p>
TEKNOLOGIA ETA INGENIARITZA I Teknologiko	TKNOLOGIA MI NTE GIA	<p>Teknologia eta Ingeniaritza irakasgaiak XXI. mendeko gizarteak planteatzen dituen beharrei irtenbidea eman nahi die, jakintza zientifikoak eta teknikoak bateratuz.</p> <p>Batxilergoko etapako helburuak lortzen eta ikasleen funtsezko kompetentziak eskuratzen.</p> <p>Irakasgaiaren diziplinarteko izaerak irteera-profila lortzen eta etapako helburuak eskuratzen laguntzen du. Matematikarako kompetentziari eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako kompetentziari lotutako alderdi teknikoak garatzen ditu.</p>

<p>GIZA ZIENTZIE APLIKATUTAKO MATEMATIKAK I</p> <p>Gizarte Zientziak</p>	<p>MA TE MA TIK A MI NTE GIA</p>	<p>Giza Zientzietara egokitutako Matematika hiru bloketan bereizten da:</p> <p>Algebra: adierazpen algebrakoak, faktorizazioa, ekuazioak eta inekuazioak lantzen ditu orohar.</p> <p>Analisia: funtzioen ezaugarriak, oinarrizko funtzioak eta beren transformazioak, adierazpen grafikoak, funtzioen limiteak eta deritua.</p> <p>Estadística eta Probabilitatea: esperimientuen gertaerak, hauen probabilitatea, parametro estatistikoak eta horien interpretazioa.</p>
<p>MUNDU GARAIKIDERAKO HISTORIA</p> <p>Giza-Gizarte</p>	<p>HIS TO RIA GE OG RAF IA MI NTE GIA</p>	<p>Aro Garaikidearen hasieratik gaur egunera arte pentsamenduak eta ideologiek errealitatea eraldatzeko bete duten funtzioa ezagutzea eta interpretatzea.</p> <p>Identitate kolektiboak eraikitzeke prozesua deskribatzea, baita mundu garaikidearen konfigurazio sozial, politiko eta kulturean duten garrantzia ere.</p> <p>Historia Garaikidean sistema demokratikoak finkatzen lagundu duten prozesuak, mugimenduak, ekintzak eta eraldaketak identifikatzea eta ezaugarritzea, baita haien atzerapausoak ere.</p> <p>Aro Garaikidean garatutako sistema eta eredu ekonomikoak azaltzea, joera demografikoetan, bizimoduetan eta bizi-zikloetan gertatu diren aldaketak eta iraunkortasunak deskribatzea eta aztertzea.</p> <p>Gaur egungo desberdintasun sozioekonomikoen jatorria definitzea.</p> <p>Aro Garaikideko gatazka nagusien eta haien indarkeria- eta suntsipen-maila handiaren kausak eta ondorioak ezagutzea eta aztertzea.</p> <p>Globalizazioaren fenomeno azaltzea, gaur egungo gizarteetako harreman-esparru gisa, baita globalizazioak tokiko eta munduko esparruan eta pertsonen eguneroko bizitzan duen eragina ere.</p> <p>Historia Garaikide unibertsalaren eta egungo egoera soziopolitikoaren analisisian genero-ikuspegia txertatzea</p>

<p>LITERATURA UNIBERTSALA Giza Zientziak</p>	<p>GA ZTE LAN IA MI NTE GIA</p>	<p>METODOLOGÍA ACTIVA Y PRÁCTICA: PROYECTOS LITERARIOS (metodología basada en situaciones de aprendizaje)</p> <ul style="list-style-type: none"> • La asignatura será mayormente <u>práctica</u> y se evaluará el <u>trabajo diario</u> y <u>las producciones finales</u>. Se crearán textos literarios escritos, orales o multimodales de forma individual o grupal, para estimular la faceta creativa y desarrollar la sensibilidad estética. • Se <u>leerán</u> obras y fragmentos de la literatura universal como fuente de placer y enriquecimiento personal y cultural, seleccionando las lecturas con criterios propios y realizando un <u>plan lector personal</u>. • Se realizarán <u>lecturas guiadas</u> y tertulias dialógicas en grupo. • Se realizarán visitas a bibliotecas tanto físicas como digitales y en la medida de lo posible <u>actividades extraescolares</u> relacionadas con la asignatura. <ul style="list-style-type: none"> • Se analizarán las relaciones existentes entre obras de la Literatura Universal y cualquier otra manifestación artística, en particular el CINE, para reconocer las semejanzas y diferencias entre los diferentes modos expresivos.
<p>LITERATURA UNIBERTSALA Giza Zientziak.</p>	<p>EUS KA RA MI NTE GIA</p>	<p>Literatura Unibertsala, Batxilergoa 1, Erein argitaletxea, 2016.</p> <p>Testu-liburua oinarri hartuta taldeka AURKEZPENAK egingo dituzte, horretarako ordenagailuak baliatuta. Ondoren, aurkezpenetan oinarritutako ESKEMAK eta GALDETEGIAK landuko ditugu eta ebaluazio azterketarako ikasiko dituzte.</p> <p>Ebaluazioro landutako mugimendu literarioen IRAKURKETAK egingo ditugu, hainbat testu eta liburu. Hauek guztiak idazleen informazioa ematen duten bideoekin tartekatuko ditugu, biografia eta bibliografiaren arteko loturak eginez. Azken ebaluazioan gustuko libururen bat aukeratu eta banaka aurkeztuko dute.</p> <p>Ebaluazio bakoitzaren amaieran literatura unibertsaleko liburuetan oinarritutako FILMAK ikusiko ditugu, testuingurua eta ezaugarri literarioak egoki ulertzeko.</p> <p>Ikasturte bukaeran ikasitakoaren DENBORAREN-LERROA planteatuko dugu birpasa gisa.</p>

<p>EKONOMIA</p> <p>Gizarte Zientziak</p>	<p>EKO NO MI A MI NTE GIA</p>	<p>Ekonomia, arrotza eta urruna egiten zaigun arren, egunero egiten dugu ekonomia.</p> <p>Ikasgai honen helburua, gure eguneroko bizitzan eragiten diguten hainbat gertakari ekonomiko ulertu eta modu kritikoan aztertzeo jakintzak eta tresnak eskuratzea da.</p> <p>Jakintza teorikoetatik abiatuz, errealitatea aztertzea.</p> <p>Ekonomiaren ikuspegi orokor bat lortu ahal izateko, mikroekomiaren azterketarekin hasten da, ondoren makroekonomia lantzen da. Jakintza teorikoak, egunkarietan eta telebistan ikusten ditugun berri ekonomikoekin uztartzeko ebaluazio bakoitzean hainbat proiektu txiki egiten dira.</p>
<p>LATINA I</p> <p>Giza Zientziak</p>	<p>LAT IN- GRE KER A MI NTE GIA</p>	<p>Mundu klasikotik datozen eta gure zibilizazioan dauden gizarte eta kultur alderdiak ulertu eta ezagutzea.</p> <p>Hizkuntzen oinarrizko elementu gramatikalak eta egiturak ezagutzea.</p> <p>Erabiltzen dugun lexikoa hobeto ezagutzea.</p> <p>Hizkuntzak ikasteko gaitasuna lantzea.</p>
<p>GREKERA I</p> <p>Giza Zientziak</p>	<p>LAT IN- GRE KER A MI NTE GIA</p>	<p>Mendebaldeko kultura hobeto ulertzea, kultura grekoa ezagutuz.</p> <p>Hizkuntzaren oinarrizko elementu gramatikalak eta egiturak ezagutzea.</p> <p>Geure hizkuntzaren lexikoaren jatorria ezagutzea.</p> <p>Hizkuntzak ikasteko gaitasuna lantzea.</p>
<p>IKUS-ENTZUNEK O KULTURA</p> <p>Giza-Gizarte</p> <p>Artistikoa</p> <p>Orokorra</p>	<p>MA RR AZK ETA MI NTE GIA</p>	<p>Ikus-entzunezko arteen ezagutzarako hastapena, batez ere irudiaren, ikusezko hizkuntza eta mugimenduko irudiaren adierazpen-moldeen azterketan arreta jarritz. Irudiak irakurtzen eta azterken ikasteko berariazko hiztegi eta tresnak ikasten dira alde batetik eta lengoia grafiko eta ikusentzunezkoen azterketa beste aldetik.</p> <p>Guzti hau proiektuen bitartez lantzen da, irudiarekin hasi, komikia, ilustrazioa eta animazioa edo irudi mugimendurekin amaituz.</p>

<p>MARRAZKETA ARTISTIKOA I</p> <p>Artistikoa</p>		<p>Marrazketa lan zientifikoko, esploratzeko eta ikerketako metodo bat da. Marrazteko STEM konpetentziari lotutako hainbat kontzeptu ezagutu eta aplikatu behar dira, hala nola argia, kolorea, ikusmen-pertzepzioa, irudikapen-sistemak, giza anatomia, kanona, proportzioa, urrezko proportzioa, eskala... Ahaztu gabe, artistek historian zehar lortu dituzten aurrerapenak</p> <p>Adierazpen grafikoa eta bere oinarrizko baliabideak</p> <p>Marrazketa eta espazioa</p> <p>Argia eta itzalak, argiluna, kolorea</p> <p>Giza irudia</p> <p>Marrazketa analitikoa</p>
<p>BOLUMENA</p> <p>Artistikoa</p>		<p>Forma tridimentsionalak eta horien hizkuntza.</p> <p>Oinarrizko egitura formala: elementuak:lerroa, plano, ertza, erpina, azalera, bolumena, ehundurak (ikusizkoak eta ukimenezkoak)</p> <p>Metodo gehigarriak eta substraktiboak.</p> <p>Ugalketa-metodoak</p> <p>ZERAMIKA. Buztin motak. Teknikak. Materialak. Konponketak. Koloreak.</p> <p>Ikonizitatea. Dialektika figuratibo-abstraktua.</p> <p>Formaren izaera. Forma organiko-ez-organikoa.</p> <p>EGURRA. Egitura. Motak. Materialak. Teknikak. Akaberak. Material jasagarriak</p>
<p>EKONOMIA, EKINTZAILTZA ETA ENPRESA JARDUERA</p> <p>Orokorra.</p>	<p>EKO NO MI A MI NTE GIA</p>	<p>Ekonomia, arrotza eta urruna egiten zaigun arren, egunero egiten dugu ekonomia.</p> <p>Ikasgai honen helburua, gure eguneroko bizitzan eragiten diguten hainbat gertakari ekonomiko ulertu eta modu kritikoan aztertzeo jakintzak eta tresnak eskuratzea da.</p> <p>Jakintza teorikoetatik abiatuz, errealitatea aztertzea.</p> <p>Oinarrizko jakintza ekonomikoak jasotzeaz gain, ikasgai honetan ekintzailtza ere lantzen da, modu praktikoa batean, enpresa bat zer den eta nola funtzionatzen duen ikasteko modurik onena, enpresa bat sortzea da, eta hori da egingo dena: talde-lanean enpresa bat sortu.</p>